



Assa Ikastola
Batxilergo 1 - Ekonomia
2024-2025 ikasturtea
Onura jatetxea

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresaren eguneko funtzionamenduaren oinarria dira. Prozesu eta ekintza horiek beharrezkoak dira zure enpresak proposamenaren balioa behar bezala eskaintzeko eta zure helburu estrategikoak betetzeko. Funtsezko jardueren kudeaketa egoki batek enpresaren eraginkortasuna handitzen du, eta horrek lehiakortasuna areagotzen du. Horregatik, jarduera hauen eraginkortasuna eta koordinazioa ezinbestekoak dira.

Funtsezko jardueren artean ekoizpena, salmentak, marketina, bezeroarentzako zerbitzua, eta kudeaketa egon daitezke, baina hauen garrantzia enpresaren sektorea eta helburuak kontuan hartuta definitu behar da. Adibidez, teknologia-enpresa batek funtsezko jardura gisa ikerketa eta garapena izango luke, eta kontsumo-sektoreko enpresa batek berriz, salmenten estrategia eta marketina izango lirateke.

Funtsezko jardueren artean honako bost hauek azpimarratu behar dira. Produktuaren ekoizpena edo zerbitzuaren eskaintza, ekoizpen prozesua edo zerbitzuen eskaintza egonkorak eta eraginkorak izatea funtsezkoa da. Hori lortzeko, kalitate kontrola eta prozesu egituratuak izango dira oinarritzakoak. Honegatik kalitatezko kontrola ezartzea produktuen egonkortasuna eta fidagarritasuna bermatzeko da.

Baita bezeroaren harremanak eta zerbitzuak garrantzitsuak dira, bezeroen espektatibak betetzea eta harreman sendoak eraikitzea ezinbestekoa da. Horretarako, salmenta aurreko eta salmenta osteko zerbitzuak oso garrantzitsuak dira, bezeroen konfiantza eta leialtasuna lortzeko. Adibidez; Bezeroarentzako arreta kanaletarako erabilgarri egotea eta bezeroen kexei modu azkarrean erantzun beharko ditugu.

Marketin eta komunikazioa, zure produktua edo zerbitzuak merkatuan ezagutaraztea, eta behar diren kanalei egokitutako mezua bidaltzea garrantzitsua da.



ASSA IKASTOLA

Assa Ikastola

Batxilergo 1 - Ekonomia

2024-2025 ikasturtea

Onura jatetxea

Marketin estrategiak, hala nola publizitatea eta marketin digitala, zure produktuak ezagutarazteko eta bezero potentzialak erakartzeko funtsezkoak dira. Online kanpainak egitea sare sozialetan bezero potentzialak iristeko baliagarria izango da.

Hornitzaileen kudeaketa, zure produktuen oinarritzko osagaiak edo zerbitzuak lortzeko, hornitzaileekin lankidetzara sendoa izatea funtsezkoa da. Hornitzaileen kudeaketa onak kostuak kontrolatzen laguntzen du eta produktuen kalitatea bermatzen du. Adibidez hornitzaile fidagarriak bilatzea eta kontratu onak sinatzea da.

Finantzak eta kudeaketak, ekonomia osasuntsua izatea eta finantza kudeaketa egokia egitea enpresaren funtsezko prozesu bat da. Inbertsioak eta gastuak kontrolatzeko, aurrekontuak eta finantza analisiak egiteko sistema sendoak ezarri behar dira. Adibidez fluxu monetarioaren kontrola eta inbertsio estrategiak erabiliko ditugu.

Jarduera bakoitza funtsezkoa izan arren, zehaztu behar dugu zein den bakoitzaren garrantzia gure jatetxerentzat.

Lehenik eta behin, lehentasuna produktuaren ekoizpena edo zerbitzuaren ematea izango da. Hori gabe, gainerako jarduerak ezin izango dugu burutu. Produktuaren ekoizpena edo zerbitzuen eskaintza egonkorrak eta eraginkorrak izatea funtsezkoa da gure enpresa hasteko. Horrekin kalitatezko kontrola ezartzea produktuen egonkortasuna eta fidagarritasuna bermatzeko da. Hori lortzeko, kalitate kontrola eta prozesu egituratuak izango dira oinarritzkoak (sukaldea, lehengaiak, menuak...).

Hurrengo lehenetsitako jarduera bezeroarentzako zerbitzua izango litzateke, bezeroen konfiantza eta atxikimendua lortzea enpresaren arrakasta bermatzeko funtsezkoa delako. Bezeroen espektatibak betetzea eta harreman sendoak eraikitzea ezinbestekoa da hau egitea. Horretarako, salmenta aurreko eta salmenta osteko zerbitzuak oso garrantzitsuak dira, bezeroen konfiantza eta leialtasuna lortzeko.



ikastolenelkartea

ASSA IKASTOLA

Assa Ikastola

Batxilergo 1 - Ekonomia

2024-2025 ikasturtea

Onura jatetxea

Ondoren, marketin eta komunikazioa izango dira garrantzitsuak, bezero potentzialak erakartzeko eta produktuaren proposamena ezagutarazteko. Gure produktua edo zerbitzuak merkatuan ezagutaraztea, eta behar diren kanalei egokitutako mezua bidaltzea garrantzitsua da. Marketin estrategiak, hala nola publizitatea eta marketin digitala, gure produktuak ezagutarazteko eta bezero potentzialak erakartzeko funtsezkoak dira. Online kanpainak egitea, sare sozialetan bezero potentzialak iristeko baliagarria izango da. Baita ere App-a eta Webgunea baliagarria izango da atal honetan, bezeroentzat ailegatzeko.

Azkenik, hornitzaileen kudeaketa eta finantzak izango dira beharrezkoak, baina prozesu hauek beste jardueren ondorioz etorriko dira, eta laguntza izango dute funtsezko ekintzen egonkortasunean. Inbertsioak eta gastuak kontrolatzeko, aurrekontuak eta finantza analisiak egiteko sistema sendoak ezarri behar dira.

Ondorio batzuetara heldu egin gara, funtsezko jardueren kudeaketa eta lehentasunak ezartzea enpresaren arrakastarako ezinbestekoak dira. Jarduera bakoitzaren eraginkortasuna etengabe ebaluatzea eta egokitzapenak egitea garrantzitsua da. Gure funtsaezko jarduerak hauek dira , produkzioa edo zerbitzuak, bezeroentzako arreta, marketina, hornitzaileen kudeaketa eta azkenik finantzak, ekoizpenaren kalitatea, bezeroen atxikimendua eta salmenten kudeaketa izango dira ardatz nagusiak, eta horiek optimizatzea izango da enpresaren arrakasta lortzeko gakoa.